**BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAK KUDEATZEN DUEN BUSTURIALDEKO ESTOLDERIA-SAREA USTIATZEKO ETA KONTSERBATZEKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3302**

| | |
|---|---|
| **Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua** | ☒BAI ☐EZ |
| **Espedientearen izapidea** | ☒Ohikoa, ☐Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐Aurreratua |
| **Mota** | ☒ Irekia<br>☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.)<br>☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.) |

| **A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA** | |
|---|---|
| **1.- Botere adjudikatzailea:** | Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/<br>Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa |
| **2.- Kontratazio-organoa:** | ☒ Zuzendaritza Batzordea<br>☐ Presidentea<br>☐ Gerentea |
| **3.- Kontratuaren arduraduna:** | Ainara Herreros Bilbao |
| **4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:** | contratacion@consorciodeaguas.eus<br>Kontsulta administratiboak eta teknikoak egiteko telefono-zk.: 94 4873100 |
| **5.- Kontratatzailearen profila:** | www.consorciodeaguas.eus<br>www.contratacion.euskadi.eus |

**B.- KONTRATUAREN XEDEA.**

**1.- Kontratuaren xedea**: Kontratu honen xedea da BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAK KUDEATUTAKO BUSTURIALDEKO ESTOLDERIA-SAREA USTIATZEKO ETA KONTSERBATZEKO ZERBITZUA KUDEATZEA, baldintza tekniko berezien pleguan zehaztutako baldintzen arabera. Kontratu honen irismenean sartzen dira BBUPk kudeatzen dituen Busturialdeko udalerrietako estolderia-sare guztiak: AJANGIZ, ARRATZU, BERMEO, BUSTURIA, EA, ELANTXOBE, FORUA, GAUTEGIZ-ARTEAGA, GERNIKA-LUMO, IBARRANGELU, KORTEZUBI, MENDATA, MUNDAKA, MURUETA, MUXIKA ETA SUKARRIETA.

**2.- Bete beharreko premiak**: BBUPk hitzarmen bat du sinatuta aipatutako udalerrietako bigarren mailako estolderia-sarea kudeatu, mantendu eta ustiatzeko. Instalazio horien bidez, saneamendu-instalazioen eskuragarritasun eta eraginkortasun maximoak bermatu behar dira, eta kontuan hartuta saneamendu-sareetan haustura-maiztasuna oso handia dela, beharrezkoa da aldaketak, zuzenketak eta berritzeak exekutatzea, horiek funtzionamendu-premien araberako egoeran mantentze aldera.

**3.- Lotetan banatzea**: ☐ Bai ☒ Ez

**Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa**: Ez da egokitzat jotzen BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAK KUDEATUTAKO BUSTURIALDEKO ESTOLDERIA-SAREA USTIATZEKO ETA KONTSERBATZEKO ZERBITZUAREN kontratua lotetan banatzea, elkarri lotutako hainbat jarduketa aurreikusten dituelako. Espediente hau lotetan banatzeak zaildu egingo luke espediente hori kudeatzea, edo, are gehiago, hura eragotziko luke lote bat edo batzuk adjudikatu ezean.

**4.- CPV:**

CPV kodea: 90480000-5

Deskribapena: Estolderiaren kudeaketarako zerbitzuak

| B.- KONTRATUAREN XEDEA. |
|---|
| **5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea**:<br>☐ BAI<br>☒ EZ<br>Onartzeko baldintzak eta aldatu edo aukeratu daitezkeen elementuak: |
| **6.-Izaera juridikoa**<br>☒ Administratiboa ☐ Pribatua |

| C.-KONTRATUAREN PREZIOA | |
|---|---|
| **1.-Lizitazio-aurrekontua**<br>(BEZik gabe) | LAU MILIOI BERREHUN ETA HOGEITA HAMABI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEI ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (4.232.480,68 €) EURO |
| **2.- Kontratuaren balio zenbatetsia**: ZAZPI MILIOI ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA HAMABI ZENTIMO (7.759.547,92 €)<br>Loteak:<br>☐ BAI<br>☒ EZ | |
| **3.-Prezioa zehazteko sistema**:<br>☐ Oroharreko prezioa<br>☒ Aleko prezioak | |
| **4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:**<br>Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:<br>• 2027. urtea----- 227.99.160.00. partida ---------------- 1.293.257,99 €<br>• 2028. urtea----- 227.99.160.00. partida ---------------- 1.410.826,89 €<br>• 2029. urtea----- 227.99.160.00. partida ---------------- 1.410.826,89 €<br>• 2030. urtea----- 227.99.160.00. partida ---------------- 117.568,91 € | |
| **5.-Prezioak berrikustea:**<br>☐ BAI<br>☒ EZ | |
| **6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:**<br>☐ BAI ☒EZ | |
| **7.- Ordaintzeko modua:** Hileko ziurtagiriak | |
| **8.- Ordainketak kontura**: Ez da aplikatu behar | |

| D.-KONTRATUAREN EPEA |
|---|
| **1.-Iraupen osoa: HIRU (3) URTE** |
| **2.- Epe partzialak**.<br>☐ BAI ☒ EZ |
| **3.- Luzapena**<br>☒ BAI ☐ EZ |

| D.-KONTRATUAREN EPEA |
|---|
| URTE BATEKO (1) BI (2) |
| **4.- Berme-epea:** URTE BAT (1). Zerbitzua ematen amaitu ondoren, BBUPk egiaztatuko du instalazioak behar bezalako mantentze- eta kontserbazio-baldintzetan daudela, baita bidezko dokumentazioa entregatu eta berrikusi dela ere, baldintza tekniko berezien pleguan jasotako eskakizunen arabera. Kontratuaren irismenaren berezko eskakizunen barruan gorabeheraren edo gabeziaren bat antzemanez gero, Kontratuaren Zuzendaritzak kontratista adjudikaziodunari jakinaraziko dizkio, eta hark bere kontura zuzendu beharko ditu, ahalik eta epe laburrenean, betiere adierazitako bermearen epearen barruan. |
| **5.- Kontratua gauzatzeko tokia:** BBUPren instalazioak |
| **6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak** ☐ BAI ☒ EZ. |

| E.- BERMEAK |
|---|
| Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa |
| ☐ Berme osagarria: Zenbatekoa: |

| F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA |
|---|
| Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin: |

| G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA |
|---|
| Azken hiru urteetan egindako lanen zerrenda, kontratuaren xede direnen berberak edo antzekoak, egikaritze onaren ziurtagirien bidez abalatuta. Halaber, gauzatze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urteko kopuruaren % 70 edo gehiago izan beharko da.<br><br>☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa:<br><br>Kaudimen tekniko eta profesionalean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietan. Bai, ordea, gainerako eskakizunak. |

| ENPRESA-SAILKAPENA |
|---|
| Eskatutako kaudimenaren ordez, honako sailkapen hau egin ahal izango da:<br><br>**ENPRESA-SAILKAPENA** ☒ Bai, hautazkoa ☐ Ez<br><br>Eskatzen diren taldea, azpitaldea eta kategoria: O Taldea – 3 Azpitaldea – 5 Kategoria |

| H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK |
|---|
| 1.- 1. gutun-azala: erantzukizunpeko adierazpena. |
| 2.- 2. gutun-azala: balio-judizioen araberako irizpideen dokumentuak. |
| 3.- 3. gutun-azala: automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak. |

## BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

Lizitatzaileek kontratua gauzatzeko proposamen tekniko bat aurkeztu beharko dute, balorazio-irizpide gisa erakutsitako zerrendaren deskribapen argi, ordenatu eta xehatua barne:

**a. Memoria teknikoa eta gauzatze-metodologia**

Lantaldeak espezialitateen eta lan-moten arabera antolatzeko eta banatzeko proposamena. Lan-ekipoen eta logistika-zentroen zonako banaketa, kontratuaren eskura, deskribapen zehatzarekin.

Sareko lanak gauzatzeko metodologia: hodiak ikuskatzea, estazioak eta ponpaketa-putzuak garbitzea, hodiak eta putzuak garbitzea, hodiak birgaitzea, hodiak konpontzea; soluzio teknikoak, materialak eta hornitzaileak adierazita.

Hauek optimizatzeko proposatutako ekimenak eta hobekuntzak: erantzun-denborak eta gauzatze-denborak, konponketen akaberak, prebentzio-lanak eta makineriaren eta ibilgailuen mantentze-lanak.

**b. Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak**

Kontratuaren eskura dauden makineria eta bitarteko osagarri gehigarriak, baita kontratuaren eremu geografikoan duten erabilgarritasuna ere: kokapena eta erabilgarritasun-denbora.

Piezen eta materialen inbentarioa (fabrikatzailea eta modeloa) eta eskuragarritasuna. Ezinbestekoa da 1. eranskineko taulan fabrikatzailea eta material guztien modeloak adieraztea.

Sektoreko prestakuntza eta esperientzia profesionala, baldintza tekniko berezien pleguaren arabera zerbitzuko langileek kontratuan eskatzen dituzten gutxienekoez gain, subrogatutako langileak izan ezik.

Lizitatzailearen antzeko beste kontratu batzuetako baliabideak erabiltzeko aukera, lan puntako kasuetan.

**c. Ingurumen-irizpideak**

Kontratistak ingurumena babesteko eta kontratu honen eremuko lanak egiten diren bitartean garapen jasangarria sustatzeko hartuko dituen hiru neurri garrantzitsuenen aurkezpena.

## ESKAINTZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK

Proposamen teknikoak berrogeita hamar (70) orrialde izango ditu gehienez, zenbakituak.

Gehieneko orrialde-kopurua zenbatzen denean, aurkibidea eta eranskinak 70 orrialdeen barnean zenbatuko dira. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko.

70 orrialde baino gehiago aurkeztuko balira, balorazio teknikoan lehendabiziko 70 orrialdeak baino ez dira kontuan izango.

Era berean, baztertzeko arrazoia izango da eskatzen den dokumentazioa eskatutako forma eta edukiarekin ez aurkeztea.

## AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

**Eskaintza ekonomikoa.** Lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskainitako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezio unitarioen zerrenda
b) Kontratuaren aurrekontua.

## I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (Administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak egiteko plataforma elektronikoaren helbidea:
https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu

## J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒Kontratazio-mahaia

Epaimahaiburua:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

## K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

**1.- Adjudikazio-irizpideak**:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU**

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

| | |
|---|---|
| Bmax | 50 puntu |
| (Bmax + BM) / 2 | 48 puntu |
| BM | 47 puntu |
| 0,8 x BM | 46 puntu |
| 0,6 x BM | 44 puntu |
| Lizitazio-aurrekontua | 0 puntu |

**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

Argibideak:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzaile bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.
Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi <= 0{,}6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0{,}6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0{,}6 \times BM < Bi <= 0{,}8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0{,}6 \times BM)}{0{,}2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0{,}8 \times BM < Bi <= BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0{,}8 \times BM)}{0{,}2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi <= (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi <= Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

**BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU**

**a. Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia 24 puntu**

Lantaldeak espezialitateen eta lan-moten arabera antolatzeko eta banatzeko proposamena. Lan-ekipoen eta logistika-zentroen zonako banaketa, kontratuaren eskura, deskribapen zehatzarekin.

(9 puntu)

**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

Sareko lanak gauzatzeko metodologia: hodiak ikuskatzea, estazioak eta ponpaketa-putzuak garbitzea, hodiak eta putzuak garbitzea, hodiak birgaitzea, hodiak konpontzea; soluzio teknikoak, materialak eta hornitzaileak adierazita. (9 puntu)

Hauek optimizatzeko proposatutako ekimenak eta hobekuntzak: erantzun-denborak eta gauzatze-denborak, konponketen akaberak, prebentzio-lanak eta makineriaren eta ibilgailuen mantentze-lanak. (6 puntu)

**b. Kontratuaren eskura jartzen diren bitarteko teknikoak**
**25 puntu**

Kontratuaren eskura dauden makineria eta bitarteko osagarri gehigarriak baita kontratuaren eremu geografikoan duten erabilgarritasuna ere: kokapena eta erabilgarritasun-denbora. (6 puntu)

Piezen eta materialen inbentarioa (fabrikatzailea eta modeloa) eta eskuragarritasuna. Ezinbestekoa da 1. eranskineko taulan fabrikatzailea eta material guztien modeloak adieraztea. (8 puntu)

Sektoreko prestakuntza eta esperientzia profesionala, baldintza tekniko berezien pleguaren arabera zerbitzuko langileek kontratuan eskatzen dituzten gutxienekoez gain, subrogatutako langileak izan ezik. (4 puntu)

Lizitatzailearen antzeko beste kontratu batzuetako baliabideak erabiltzeko aukera, lan puntako kasuetan. (7 puntu)

**c. Ingurumen-irizpideak puntu 1**

Kontratistak ingurumena babesteko eta kontratu honen eremuko lanak egiten diren bitartean garapen jasangarria sustatzeko hartuko dituen hiru neurri garrantzitsuenen aurkezpena. (puntu 1)

**2.- Berdinketak hausteko irizpideak**:
Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:
a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

**3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:**
Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:
- Lizitatzaile bakarra dagoenean eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzaile daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzaile daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.

## K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Lau lizitatzaile edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatuko da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatuko da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak egin dituztenean, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka egin duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

**4.- Lizitatzaileak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:**

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

## L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

## M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

## N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lizitatzaileak arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela ziurtatzen duen egiaztagiria.

## Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Handitu ahalko da gauzatu beharreko ale-kopurua, kontratuaren prezioaren % 10eraino, SPKLren 309. artikuluan ezarritakoaren arabera, zeina ez baita aldaketatzat hartuko.

## O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒Hasierako ekarpenaren betebeharra
☐Azpikontratazioaren mugak

## P.- SUBROGAZIOA

Bai

## Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI
☐ EZ

## KONTRATUAREN IRAUNALDIAN BETETZEKO BALDINTZAK

### KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak erabakiak hartzeko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio kontratuari, eta horrek kontratista ordezkatu beharko du kontratuaren harremanei eragiten dien guztian.

Kontratistaren ordezkaria plantillan sartuta egongo da, eta kontratuaren zuzendaritzaren solaskidea eta lanen arduradun nagusia izango da.

### ASEGURUAK

Kontratuaren xede diren lanak gauzatzean, adjudikazioduna sortzen diren kalteen erantzule bakarra, eta bere kabuz eta arriskupean konpondu beharko ditu.

Adjudikaziodunek aseguru-poliza bat eratu beharko dute, baldintza teknikoen plegu honen xede den Kontratua garatzen den bitartean pertsona, eraikin, instalazio edota ibilgailuetan (BBUPkoak edo hirugarrenenak) izandako kalteak estaltzeko.